


Belatz [portaerako] batek Uso bat aurkitzen duenean, irabazi egingo du; hortik ez da ondorioztatzen, ordea, Belatzek Usoak ordeztuko dituztenik, **zeren**, Belatz batek beste Belatz batekin topo egiten duenean, gaizki ere gaizki joan **baít**akioke kontua.



Farmelo, Graham: *Eder behar du*, ZIO bilduma, EHUpress, 2009 (euskaratzailea, Fernando Morillo).



(zeren)... bait-

Izatez, aukerakoa da hor **ZEREN**; berez, aski da **BAIT-** halako perpaus mendekoak osatzeko.

Esaldi konplexuetan, hala ere, lagungarri gerta daiteke, zuhur erabiliz gero.

Kasurik nabarmenena: BAIT- daraman perpaus menderatuaren hasieran **tartekiren** bat dugunean, bestela ez baita garbi geratzen BAIT- daraman perpausarekin doala **tartekia**:


♦ ...hortik ez da ondorioztatzen, ordea, Belatzek Usoak ordeztuko dituztenik, **Belatz batek beste Belatz batekin topo egiten duenean**, gaizki ere gaizki joan **bait**akioke kontua.

Aurretik **ZEREN** emanez, argiagoa da testua,
eta irakurgarriagoa:

◆ ...hortik ez da ondorioztatzen, ordea, Belatzek
Usoak ordeztuko dituztenik, **zeren**, Belatz batek
beste Belatz batekin topo egiten duenean, gaizki
ere gaizki joan **bait**akioke kontua.

Beste adibide honetan, laburra da **tartekia** (eta ez doa hasieran). **BAIT**- daraman perpausa, ordea, luze samarra. Komeni da, beraz (tartekirik ez balego ere berdin), hasieratik markatzea nolako perpausa den hor abiatzen dena, **BAIT**-en esanahi kausala **ZEREN**ekin aurreratuz. Bestela, **BAIT**-era arte, galdurik dabil irakurlea, eta, **BAIT**-era heltzean, atzera egin behar du, berezko jarioaren aurka:

🌀 Bide galdua dirudi horrek, ordea, **zeren** «quark» eta «gluoi»en eragiketa-definizioak egiteko erabiltzen diren turrustek, **beste partikula batzuen artean**, protoiak edukitzen **baitituzte** maiz.



Oso garrantzitsua da testuetan hori zaintzea, baina gehiegikerian erori gabe, hots, perpausen luze-konplexutasun jakin batetik gora bakarrik joz **ZEREN**, **EZEN** eta gisako lagungarrietara.

Ikus bedi '(EZEN)...-eLA' egitura fitxa,
«Ehulkuren aholku guztiak» sailean.

Hona zenbait adibide, ZIO bildumako *Eder behar du* liburutik:

Edward Teller-en arabera, Fermi-k, bat-batean, guztiz ustekabeko galdera bat jaulki zuen: «Non dira guztiak?». Aho bateko karkara izan zen galdera haren ondorioa, **zeren**, Fermiren galdera, harrigarri badirudi ere, guztiz hutsetik sortua izanagatik, mahai inguruko guztiek berehala ulertu bide **bait**zuten bizi estralurtarraz ari zela.

Horrekin, «ekuazio sestante»ak laugarren esanahi bat bereganatu zuen, **zeren** armok, itxura batean, ezaguerarik esoterikoenarekin batera, berekin **bait**zekarten suntsigarritasunik lazgarriena.

- Ezin halakorik egin kuantu-teorian, **zeren**, oro har, perturbazio batek trantsizioak eragingo **bait**ituzke W positiboko egoeretatik W negatiboko egoeretara.
- Hori garrantzitsua da, **zeren**, eskuarki ez dugularik arrastorik ere iraganeko populazio-tamainaz, hala ere zuzentzat jo **bait**ezakegu gutxi gorabehera konstante dela mutazio-tasa.
- Aldea ere bada bien artean, **zeren** suposizioak, onenean ere, hurbilpen doi batzuk baino ez **bait**tira.
- Emaitzok egiaztatzea, ordea, zaila da, **zeren**, deskribatu berri dudan eredutik garbi ateratzen den moduan, suposizio mordoxka bat egin beharra **bait**ago.

Badira aldaera batzuk literatura-tradizioan.

ZEREN...-N

*Batzuek iges egiten due dotrinetatik, eta Jainkoaren itzagandik, **zeren** biotzik ez du**en** bekatutik, eta bekatuaren bideetatik aldegiteko.*

Agirre Asteasukoa, *Eracusaldia* III, 1850

*Zenbat emakume bizi dira, gauak, eta egunak negarrez igarotzen dituela, **zeren** berentzat, eta umeentzat bear duena ezin bilatu du**en**.*

Agirre Asteasukoa, *Eracusaldia* I, 1850



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



ZEREN ETA... (BAIT-/-N)

ZEREN soilaren lekuan, ZEREN ETA ere erabiltzen da.

Gehienetan, BAIT-/-N menderagailuari eusten zaio, baina menderagailurik gabe ere joan daiteke:

*Denda itxi behar dugu, **zeren eta** alerta gorrian gaude.*

*Nire ustez, jendeak erretzeari utzi egin beharko lioke, **zeren eta** oso txarra da osasunarentzat.*

*Aprobetxa ezazue gaurko eguna hondartzarako, **zeren eta** bihartik aurrera okerrera egingo du eguraldiak.*

*Ori ez litzake arritzekoa, **zeren eta** iñork eztingu ezer zor.* (Luis Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 1962)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Iparraldeko tradizioan, **EZEN** ere erabiltzen da menderagailurik gabe perpaus kausalak emateko.

Bi molde bereizten dira, beraz, joskeraz:

ZEREN... BAIT-/-N

EZEN... Ø

(*EZEN... BAIT-/-N)

Ordea behar bada boztuko dira, ustez ezen gonbidatzen tudala Marteren suzko eta kharrezko joko, eta habarrots izigarrietara. Ez; **zeren** nihork gonbidatu gabe berak **baitira** hartara asko emanak. Baina deitzen tut Minerbaren dosteta ezti, eta kanta-alosien bidez enorantziaren kontra egiten den gerla ohorezkora, eta bat-bederak batere arriskurik gabe hainitz abantail eder ardiets detzakenera. Hau da gerla eder, eta miragarri hura, zeinetan jakintasunak nahi baitu gizona altxatu, eta abantaillatu: hala nola enorantziak nahi baitu aurthiki, eta ostikatu. Hautxe da bada nik aipatzeko dudan gerla. Halatan beraz arrozoin lukete gure gaztek laster egiteko ene deihadar huntara: **ezen ezta** munduan gizonik jakitea desiratzen eztuenik, **zeren** guztiok jeneralki **baitugu** geure baitharikako gutizia bat jakiteko, eta hargatik naturalki penduratzen gara jakintasunera, gure perfezinora bezala.

Joanes Etxeberri Sarakoa, *Escual-Herrico gazteriari*, 1712

EZEN horren aldaera batzuk ohikoak dira ahozko hizkera batzuetan:

(E)ZE(N)
ZERGATIK (E)ZE

*Eroan guardasola, **ze** euria egingo du.*

*Bihar amaituko dut, **ze** orain ez dut denborarik*

*Ez edan askorik, **eze** gatx egiten deu.*

*Gero eta hobeak etorriko dira. **Zergatik ze** adelantu hobeak dauzkate.*

*Etzaittez biar etorri, **zegaittik eze** biar illan azkena da ta jente asko egongo da.*

Gehiago jakiteko:

Euskaltzaindiaren Gramatika batzordea: *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (Lokailuak)*, Euskaltzaindia, 1990 (180.-209. or.)

Euskaltzaindiaren Gramatika batzordea: *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-VI (Mendeko perpausak-2)*, Euskaltzaindia, 2005 (180.-209. or.)

Gaminde, Iñaki: “Esaldi kausalak Bizkaian”, in *Luis Villasanteri omenaldia*, IKER-6, Euskaltzaindia, 1992 (183.-194. or.)

Villasante, Luis: *La oración causal en vasco*. Editorial franciscana Aranzazu, 1986